

PLENTZIA. Eguen iluntzeetan, eta domeka eguerdietan emitiduko dabe PTBn

Plentzia Telebista biztu dabe barriro, bost urte geldirik egon ostean

Herriko albisteak eta kirol informazioa landuko dabe batez be, euskeraz eta gazteleraz

Veronica Muñoz |

Plentzia Telebista emititzen hasi da barriro, bost urte baino gehiago geldirik egon ostean. Herriko gazte talde bat gogor dabil beharrean Juan Aranburu plentziarrak 1987an sortutako proiektua barriro martxan ipinteko. Joan zan domekan, lehenengo emisinoa bota eben. Ordu beteko magazina izan zan, 13:00etan, eta datorren domekan be horixe botako dabe. Orain aprobak egiteko sasoiak dabilz gazteak, baina, denporagaz, eguenetan be emititzen hasi gura dabe, iluntzean.

Plentziako albiste orokorrak, eta kirol informazioa jorratuko dabez batez be, PTBn. Horrezaz ganera, euskeraren erabilera be bultzatu gura dabe, eta asmoa behintzat programazioaren % 50 euskeraz botatea da.

Plentzia Telebista barriro biztea behar gata izan da. Izan be, 1999ko zemendian lehenengoz inaugurau eben katea, baina, arazo teknikoak dirala eta, hila-bete bat igaro ostean bertan behar itxi behar izan eben proiektua. Halandabe, 22 eta 33 urte arteko gazteek osotutako taldeak ez eban amorerik emon, eta beharrean jarraitu eben. Lokal zaharra atontzeko behar danak, esate baterako, euren egin dabez: paretak pintau, argiztapena egokitu, lurzorua atundu... Zazpi lagun inguru dagoz sar-



VERONICA MUÑOZ

Plentzia Telebistako lokal zaharra atontzeko behar guztia taldeko lagunek egin dabe.

BOST URTEKO LANA

Lokal zaharra atontzeko beharrak gazteek egin dabez, eta horretarako azken bost urteetan ibili dira beharrean

KOLABORATZAILEAK

Jentearen laguntza eskatzen dabe bultzatzaileek, Plentzia Telebista aurrera atera ahal izateko

tuta proiektuan, eta guztiek behar egiteko gogo bizia daukie. Halan eta guzti be, laguntza preminazkoa dala azaldu dutsie Bizkaia-ri eta horregaitik kolaboratzaileak eskatzeko deia luzatu dabe. PTBn parte hartu gura daben guztiek, telefono honetara deitu leikie: 94 677 33 04.

GETXO. Oinezkoentzako guneak zabaldu gura dabez, eta horretarako 63 milioi pezeta inbertiduko dira

Norantza bakarra ipini gura dabe kale batzuetan

V.M. |

Espaloiak zabaltzeko, trafikoa norantza bakarrean bideratzeko eta inguruan zuhaitzak landatzeko beharrak egiten dabil Getxoko Udala, egunokaz, udalerriko zenbait kaletan. Behar horreen bitartez, oinezkoentzako gune gehiago sortu gura dabez herrian, getxotarrak nasai ibilteko leku gehiago euki daien, eta herriko dende indar gehiago hartu daien.

Obra horreek, orain arte, ondorengo kaleetan egin dabez: Algortako Euskal Herrian, Alangobarrin, San Martinen, Lorenzo Areilzan, eta Algorta-

ko Etorbidean, Geltoki plazatik Andres Cortina kaleraino doan tartean.

Aldaketa horreen ondorioz, autoak ibilteko bide bakarra izango da, eta ez da egongo autoak txarto aparkatu izteko aukerarik. Getxoko Udalak 63 milioi pezeta inbertiduko dauz, herriko kale guztietan antzeko beharrak egiteko.

Bestalde, Erromo, Altube, Jauregialde, eta Algortako beste hainbat kaletan kaleko argi barriak ipinteko obra amaitu dau Udalak, eta 57 milioi pezeta inbertidu dauz. Antzeko kaleko argiak ipiniko dabez laster, herri osoan.

Maiatzean amaituko dabez Txurruka kamingaineko obrak

V.M. |

Txurrukako moilaren kamingaina urbanizatzeko beharrak maiatzean amaituko dira, Andres Uriarte Urigintza zinegotziak azaldu dauenez. Inguru guztia txukuntzeaz ganera, bankuak ipini dabez, hortik igaroten diran pertsona guztiek atsedena hartzeko aukera euki daien. Behar gehienak eginda dagoz dagoaneko, eta bakarrik falta da kaleko argiak ipintea, proiektu osoa amaitzeko. Obretarako inbertsinoa 77 milioi pezetakoa izan da.

Orain arte, Txurrukako moilaren kamingaina hondatuta

egoan; bertan, ganera, jentear lagatuko zarama asko egoan. Iñaki Zarrakoa alkateak azaldu dauenez, inguru hori ibilteko leku ederra da, eta horregaitik zaintzea erabagi dabe.

Titan garabia, barriro Arriluzen

Horrezaz ganera, Udalak be Titan garabaiaren hormirudia berreskuratu gura izan dau. Hormirudi hori, hain zuzen, Arriluzeko moilan urte askotan egon zan Titan garabiaren irudia jasoten dau. eta Angel Cañadas artistak egin eban obra hori, eta horren zatiak Bilboko Portuan egozan. Orain barriro Arriluzeko moilan ipini dabe.

LABURAEAN

LEIOA

Espainiako guda zibileko argazkiak, Sakoneta kultur aretoan

Inoiz ez gehiago!. Gudaren irudiak (1936-1939) izeneko erakusketa zabalik dago, Leioako Sakoneta kultur aretoan, maiatzaren 4ra bitartean. Espainiako guda zibila Euskal Herrian, horixe da erakusketaren gaia; 11 panelen bidez, sasoi haretan ateratako argazkiak ikusi leitezke. Argazkiakaz batera, erakusketan *Gudaren Irudiak* izeneko dokumentala be ikusi leiteke. Erakusketa arrastian dago zabalik, 16:00etatik 20:00etara.

Emaizta ederrak, motorren abiadura kontroletako kanpainen

Herriatik igaroten diran motorren abiadura, eta gidarien segurtasun neurriak kontrolatzeko kanpainaren lehenengo astea amaitu da, eta Udalak eraginaren balantzea atera dau. Horren arabera, motorren gidariak, orokorrean, preminazko neurri guztiak bete dabez. Halandabe, alde txarrak be aurkitu dabez Leioako udaltzaiek egindako kontroletan. Esate baterako, zarataren arazoa, eta oinezkoentzako bideak ez errespetetea. Aste honetan udaltzaiek kontrol zehatzagoak egiten dabilz, eta legea beteten ez dabenei isunak ipiniko deutesieez.

BERANGO

Heziketa sexualaren ganeko berbaldia, bihar

Seme-alaben heziketa sexualaren ganeko berbaldia eratu dau kultur etxeak, herriko gurasoentzat, biharko. Albora zentroaren sexologo batek gurasoen duda guztiak argitzen saiatuko da, 19:30etik aurrera, areto nagusian. Ekitaldia gaztelekuan martxan dagozan gazte tailerren barruan sartzen da.

AGENDA

GETXO

Zine Kluba: *American psycho*, Mary Harron zuzendariaren filma botako dabe, arrastiko 20:30etik aurrera, Algortako Getxo antzokian. Emonaldirako sarrera 350 pezetan ipini dabe, eta filma ikusi ostean horren ganeko foruma izango da. **Erakusketa:** Eva Rodriguez artistaren erakusketa zabalik dago, Algortako erakusketa gelan, hilaren 28a arte. Erakusketa astegunetan ikusi leiteke, goizean eta arrastian. Zapatuetan goizean bakarrik zabalduko dabe, 9:00etatik 13:00etara.